



**2016KO MAIATZAREN 6KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Ane Irastortza Izagirre zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Jarraian, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2016ko apirilaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 23 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HOGETA ZORTZI EURO ETA HAMABI ZENTIMO (58.328,12 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

11-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea heriotzagatik.

16-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2016ko apirilaren 26tik aurrera astelehenetik larunbatera egunero 2 ordu, laguntza pertsonala eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena %35 izango da.

16-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2016ko maiatzaren 3an astean behin bi orduz etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena %35ekoa izango da.

- 16-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea maiatzaren 2an astelehenetik ostiralera egunero 2 ordu, laguntza pertsonalerako eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena %35ekoa izango da.



- 16-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta 2016ko maiatzaren 3an, astelehenetik ostiralera egunero ordu bete, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena %15 izango da.

#### Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.-

- 16-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 46,25 euroko dirulaguntza ematea apiriletik abendura eta alokairuko gastuetarako hilean 125 euroko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 46,25 euroko dirulaguntza ematea apiriletik abendura eta alokairuko gastuetarako hilean 125 euroko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eskatutakoaren %100 da.
- 15-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 120 euroko laguntza ematetik 80 euroko laguntza ematera apiriletik abendura. Eskatutakoaren %100 da.
- 15-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 120 euroko laguntza ematetik 80 euroko laguntza ematera apiriletik abendura. Eskatutakoaren %100 da.

#### IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

